



NIG- G95136115
Registro AS/B/08831/2000
Contacto: 667936126
barakaldo@ekologistakmartxan.org
C/San Juan 10 bajo 48901 Barakaldo

Proposamena

PROPOSAMEN EZ LEGEGILEA. EUSKO LEGEBILTZARRA.

ZIOEN ESPOSAKETA

HCH-Lindano deskribapena

Lindanoa konposatu kimiko bat da, pestizida gisa erabilia izan dena. Hexakloroziklohexanoaren (HCH) isometro kimikoa da, susantzia organoklorauta da, eta horrela oso altu gisa ezaugarritzen da:

Iraunkortasuna: geldoa eta biodusestatze zaila

Pozoitasuna: Inguruguroan zein animalietan eragin kaltegarriak sortzen dituzte

Mugikortasuna: higikortasun errazekoa

Bioakumulazioa eta biohanditasuna: biodeusestapena eta kontzentrazio errazeako izanik kate trofikoan mantentzea errazten du

Bere ezaugarri fisikoa, giroko tenperatura dagoenean, kristal hauts gris kolorekoa da. Nekazaritzan erabilia izan da pestizida eta intsektizida bezala batez ere, abeltzaintzan antipasarito gisa eta farmakologikoki gizakietan (sarna eta eltxoen kontra) Komertziora bideratzeko produktu honen fabrikazioa, zabor kopuru handia sortzen zituen: produktuaren kg. bakoitzeko 9kg. sortzen ziren, kutsadura ezaugarri berberekin. 2015. urtetik, Munduko Osasun Erakundeak 'gizakientzat minbizi sortzaile' bezala ezaugarritu zuen, 1 taldearen barnean: pozoitasuna egiaztatu daukaten produktu kimikoak.

Apurtzaile endokrino' gisa bezala eragiten du ere, oreka hormonalaz aztoratu dezakeen sustantzia da, sistema neurologikoari edo ugalketa sistemari eraginez. Gai nesposaketaren ondorioz sistema horiei egin dakiekena oso larriak izan daitezke, bihotzari eragitekoa, hepatikoa, heriotzerarte batzutan.

Zaborraren sakanaketa eta Lindanoaren fabrikazioa Euskadin

Euskadin, Linade HCHren fabrikazioa 40. eta 90. hamarkaden artean egin zen, geografikoki sabanatu gertatuz.

Zehazt-mehatz, produktu hau haurren enpresek fabrikatu dute:

Barakaldo (Bizkaia) (1947-1987). Bilbao Chemical S.A. Aurretik bere izena Insecticidas C6ndor S.A., izanik, Standard Qu6mica e Idanor. Gero Boehringer multinazionalak erositia. Erandio (Bizkaia) (1952-1982). Nexana S.A. Ondoren Celamerck multinazionalak erositia.

Amorebieta (Bizkaia) (1966-1985).

Aurretik aipatu bezala, fabrikazio honetan zabor asko sortzen zen. Zabor hauek, antzeko kutsadura gaitasuna eta konposamen kimikoarekin, kontrolik gabe hamarkadetan zehar isuri ziren, bai zabortegietan beste produktu ezberdinekin nahastuak edota kontrolik gabe ingurugiroan. Lantegietatik gertu zeuden ingurune eta pagadietan: Nerbioi ibaiaren Ezkerraldean, Leioa-Getxo, Loiu, Erandio eta Bilbo (Bizkaia). Beste zabor batzuk urrutiago eramn ziren: Lemoiz (Bizkaia), Gardelegi (Araba), Borobia (Soria), Cabria (Palentzia)... besteak beste.

Pasa den mendeko 90.hamarkadan, kutsatutako lurzoruetan arpilatutako zaborra kontrolatuta biltegitratzeko Bizkaian azpiegitura ezberdinak eraiki ziren, HCH-lindano bereziki. Segurtasun ziega hauen eraiki zela jakitun gara hurrengo herrietan egin zirela: Leioa – Getxo (Sarriena), Loiu (Aireportua) y Barakaldo (Argalarrio).

Guzti horiek behin behineko konponbide gisa bailiran diseinatu ziren, ingurugiroan kontrolik gabeko isurketei aurre egin ahal izateko, baita interes ekonomiko zuten lursailen erabilpena egin ahal izateko, behin hauen kutsadura kenduta: Artea merkatalgunea Getxo-Leioan, Loiu aireportu berria Barakaldoko Megapark-eko merkatalgunea, dira garrantzitsuenak.

Kutsatuta jarraitzen duten lursailak toki ezberdinetan daude, eta kasu askotan, ur hutsalei eta azpiko urei eragiten diete. Horietara HCH Lindanoa erraztasun handiz heltzen da, honek mugikortasun handia baitauka.

Ibai arro ezberdinetan detektatu da HCH Lindanoa: Nervion-Ibaizabal-aren itsasadarrean eta ibaiadarretan, Zadorra ibaia,... besteak beste. Zenbait kasutan, giza, animalia edo ureztatze kontsumorako bideratuta dauden uren kaptazioan.

ARAUKETA.

HCH-Lindanoaren arriskugarritasunaren ondorioz, herrialde askotan bere ekoizpena debekatua izan zen XX.mendeko 80. hamarkadan.

Nazioarte Mailan, 2004.urteko Stockolm-eko Hitzarmena adierazgarria da (181 herrialdek balioetsita) konposatu organikoen iraunkorren ezabaketarako, horien artean HCH barnebiltzen duenak, 2010. urtetik aurrera.

1979tik aurrera europar bada legeri murriztailea: 79/117/CEE Zuzentaraua, 84/491/CEE Zuzentaraua... besteak beste. 850/2004 (EB) Araudiak lindanoaren edozein erabilpen debekatu zuen, 2007. iraungitzen ziren salbuespen batzuekin.

Uretan eukiko lukeen presentziaren kontrolari dagokionean, 2013/39/UE Zuzentaraua uren politikako lehentasunezko sustantziei dagokionean HCH lehentasunezko eta arriskutsua den sustantzia gisa hartzen du HCH, ur hutsalaren kantitatean mugak jarri: urteko bataz besteko kontzentrazioa 20 ng/l izanik eta onartutako kontzentrazioaren muga 40 ng/l izanik. Ur Panetan muga hauek aintzat hartu behar dira, uraren egoera kimikoa baloratu ahal izateko.

Espainiako eremu juridikora ekarri zen Zuzentaru hau 817/2015 Dekretuaren bidez, ur hutsal zein ingurugira kalitatearen araua aztertzei irizpideak ezartzen zirela, kontzentrazio zein muga berberak eukiz. (lehentasunezko sustantzia eta arriskutsua).

Arritzekoa bada ere, kontraseanak dituelako, 1998/83/CE Zuzentaruak gizakien kontsumaroko ur kalitatea ebatzen duena, HCH lehentasunezko eta arriskutsua den sustantzia bezala ez du aintzat hartzen, bakarrik plagizida bezala onartzen da, hortaz, legedi orokorrean oinarrituta bere trataera mugak altuagoak izanik: 100 ng/l banako plagizidetarako eta 500 ng/l plagizida guztietarako. 140/2003 Dekretuak barnebiltzen duen araudia da, gizakien kontsumorako uraren kalitatearen irizpideetarako.

2000/60/CE Uraren Zuzentaru Markoak uraren kalitatearen exigentziak barnebiltzen ditu

baita ekintzan planak eukitzearen, Ur Planetan lehentasunezko sustantziei dagokienean. Kasu askotan araudi hau ez da betetzen.

Bestalde, zaborren kudeaketa eta kutsatutako lursailen kudeaketarako aplikazio legala izan beharko litzateke kasu hauetan. 2008/98/CE Zaborren kudeaketarako Zuzentaraua Markoa eta bere garapena espainiar testuinguru juridikoan: 22/2011 zaborren eta kutsatutako lursailen Legea, (partzialki aldatuta 5/2013 legearen bidez), lursailen kutsaduraren prebentziorako eta zuzenketarako ekainaren 25eko 4/2015 legea, urtarrilaen 14ko 9/2005 dekretua, zeinean aintzat hartzen dira zeintzuk diren ekinbideak kutsakorrak izan daitezkeenak eta lursail kutsatuaen aitortza zein den adierazteko irizpideak zeintzuk diren ezartzen dituenak, urtarrialren 30ean 165/2008 dekretua zeinean ekinbide zein lursailen zerrenda, hauek kutsadura pairatu dituztenak eta otsailaren 24ko 49/2009 dekretua zaborren deuseztapena arautzen duena eta betetzeak arautzen duena. Era berean aplikatzekoa litzateke, eragingo liokeena, abenduaren 16ko 1/2016 dekretua Kutsagarrien kontrol eta prebentziorako produktuen lege laburduta onartzen zuena.

Gure ustez legebiltzar honek, bere eskumenak aitzat hartuta eta ingurugiroaren eta etorkizuneko belaunaldien, politika publikoak sustatu behar dituela (udal mailakoak, autonomikoak, estatu mailakoak eta Europa mailakoak), bereziki osasungintza eta ingurugiroaren babesean eskumena duten instituzioek.

EDUKIA

Honen guztiagatik, hurrengo Proposamen ez legegilea onartzen da:

1. Espainiako Gobernuari: 140/2003 dekretuan gehitu dezan, eta Eusko Jaurlaritzari legedi autonomikoan txertatu dezan, gizakien ur kontsumorako irizpidetan, arriskutsuak diren lehentasunezko sustantziak baita kontrolerako parametroak 817/2015 Dekretuan aipatu bezala, zeinean ebaluaziorako eta jarraipenerako irizpideak ezartzen dituenak, ur hutsalenzako eta ingurugiro kalitaterako arauentzako.
2. Eusko Jaurlaritzari ur hutsalak, eta azpiko urak, kutsadura arrastoak dituztenak, eta lehentasunezko sustantziak dituztenak, uraren kaptazioa debekatu dezan
3. 2016-2021 indarraldian exekutatu beharko litzatekeen Ur Planean dauden akatsak zuzendu daitezen, eta lehentasunezko sustantziak zuzentzeko neurri zehatzak hartu ditzan, ur hutsaletan eta azpiko uretan, ingurugiro legedian onartuta dagoen bezala.
4. Eusko Jaurlaritzari: Ekintzarako Mahai Institutuzional bat, erakunde publikoen (udal mailakoa, maila autonomikoan eta estatu mailako), gizarte zibilaren eta ordezkari zientifiko-teknikoen (EHU) parte hartzearekin, Barakaldoko Udalean egin parte hartzen ari diren bezala. eremu ezberdinetan (autonomikoa, estatukoa eta europarra) , kutsadura kentzeko ezagutzen elkar trukea egiteko, ikerketarako plan integralak garatu daitezen.